Halaber, esan du arduradunak direla, 2009. urtean, EAJ-PNV udal taldearen eskariz, adjudikaziodunak egin ezin izan zituen obrak egiteko lizitazioan bigarren eta hirugarren lekuan geratu ziren enpresekin negoziatzeagatik. Saiakera horrek huts egin eta gero, eta, kasu horretan, Euskal Herria Bildu udal taldeak hala eskatuta, prozesu parte-hartzaile bat ireki zen, Errebalerako proiektuak ahalik eta adostasunik handiena izateko; horrek urtebete baino gehiagoz atzeratu zuen emaitza, eta, ondorioz, bere udal taldea horren erantzule ere bada. Obra-proiektu berri baten idazketaren ardura ere bere taldearena da, bai eta haren lizitazio, eta ondorengo suntsipenarena ere, "Dragados" enpresak Udalari bi milioi euro kentzen saiatzeagatik. Era berean, bere egiten du proiektu berri honen eta ondorengo lizitazioaren idazketaren ardura, baina ukatu egiten du inolako hauteskunde-kalkulurik dagoenik; dagoena da lehenbailehen gauzatzeko borondatea.

También manifiesta que son responsables por haber negociado en el año 2009, a petición del grupo municipal de EAJ-PNV, con las empresas que quedaron en segunda y tercera posición en la licitación para continuar con las obras que el adjudicatario no pudo ejecutar. Una vez que ese intento fracasó, a petición en este caso del grupo municipal de Euskal Herria Bildu, se abrió un proceso participativo para definir un proyecto para Errebal lo más consensuado posible, lo que dilató el resultado final en algo más de un año; en consecuencia, de eso también se considera responsable su grupo municipal. También lo es de la redacción de un nuevo proyecto de obras, de la correspondiente licitación, su posterior rescisión y de evitar que la empresa “Dragados” escamoteara dos millones de euros al erario municipal. Del mismo modo, asume la responsabilidad en la redacción de este nuevo proyecto y de su posterior licitación, pero desmiente que

exista cálculo electoral alguno puesto que lo que existe es la voluntad de que se materialice cuanto antes.

**Mendicute Rodriguez jaunak** zalantzan jarri du gobernu-taldearen erantzukizun eza Errebaleko proiektuaren gestioan, eta gogorarazi du PSE-EE-PSOE, EAJ-PNV eta EA udal taldeek bere garaian hartu zuten konpromisoa merkatu-plazako postuak mantentzea zela.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** pone en duda la ausencia de responsabilidad del equipo de gobierno en la gestión del proyecto de Errebal y recuerda que el compromiso asumido en su momento por los grupos municipales de PSE-EE-PSOE, EAJ-PNV y EA era de mantener los puestos de la plaza del mercado.

Horren haritik, aitortu du bere alderdi politikoa saiatu zela proiektua sartuta zegoen paralisi hartatik ateratzen, merkataritza gune ireki bat berriro aktibatzen ahaleginduz, zeinarekin, bide batez, bera ez zegoen ados. Arrazoi horrengatik, galdetzen du ea zergatik den txarra zigortutako merkataritza-gune bat ekonomikoki suspertzea, PSE-EE-PSOE udal taldeak gune horretan autobus-geltokia kokatu nahi zuen-eta.

A este respecto, reconoce que su grupo político intentó desatascar la parálisis en la que se había instalado este proyecto, intentando reactivar un centro comercial abierto, con en el que, por cierto, él mismo no estaba de acuerdo. Por esta razón, pregunta qué hay de malo en reactivar económicamente una zona comercial castigada cuando el grupo municipal de PSE-EE-PSOE pretendía ubicar en esa zona la estación de autobuses.

Dena den, eta eguneko gai-zerrendari helduz, kritikatu egiten du kreditu-aldaketa 3,5 miloi eurotik gorakoa izatea, "Dragados" enpresarekin egindako kontratuaren prezioa baino altuagoa; horren harira, komenigarria izango litzateke, hasieran aurreikusitakoa baino

De todas formas, y ciñéndose al punto del orden del día, critica que la modificación de crédito ascienda a 3, 5 millones de euros, cantidad superior al precio del contrato con la empresa “Dragados”; a este respecto, sería conveniente publicar un listado de los

gastu handiagoak izan direla ikusita, proiektu honen gastu-zerrenda bat argitaratzea: zerbitzu, kable eta hodien bigarren aldaketaren ordainketa, Musika Eskolarako inbertsioa, orubearen berrerosketa salmenta txar bat egin ondoren, Rialtoren alokairua.

Nolanahi ere, eta lehen adierazi duen bezala, bere taldearen helburua postuen titularrei segurtasuna ematea da, eta hori bada izan PSE-EE-PSOE udal taldearen erantzukizuna, eta ez obrak presaka amaitzea; horrelaxe eraman baita arraina saltzeko postu baten titularra ziurtasungabetasun ekonomikora eta bideragarritasun ezera, izan ere, emakume horrek sinestu baitzuen gobernu-taldeak saldu zion proiektuan. Hala, ohartarazi du oraindik ere garaiz dabiltzala hori zuzentzeko eta plaza berrian lehendik dauden postuei aterpe emateko.

gastos de este proyecto superiores a los inicialmente previstos, como son: segundo pago de modificación de servicios, cables y tuberías, inversión para la Musika Eskola, recompra del solar después de una mala venta, alquiler del Rialto.

No obstante, tal y como ya ha señalado, la intención de su grupo es dar certidumbre a los titulares de los puestos -cuestión que sí es responsabilidad del grupo municipal de PSE-EE-PSOE- y no finalizar las obras con prisa, porque así se ha llevado a la incertidumbre económica y de viabilidad de su negocio a la titular de un puesto de venta de pescado que creyó en el proyecto que le vendió el equipo de gobierno. Así, advierte que aún hay tiempo para rectificar y dar cobijo en la nueva plaza a los puestos existentes.

**Lamarain Cobo andreak** berriz ere dio Udalak dirua galdu zuela orubearen "salmenta-erosketan" eta PSE-EE-PSOE udal taldearen bozeramaleari leporatzen dio bere lehen interbentzioan isildu izana parking bat izan behar zen egitasmoa bertan behera laga zela, ez zekitelako han zer egin; hala, handik aurrera prozesu parte-hartzailea jarri zen martxan. Eta egia izanik ere krisi ekonomikoa ez dagoela

La **Sra. Lamarain Cobo** se ratifica en su afirmación de que el Ayuntamiento perdió dinero en la “venta-compra” del solar y reprocha al portavoz del grupo municipal de PSE-EE-PSOE que haya obviado en su primera intervención que se optó por paralizar el proyecto de lo que entonces iba a ser un parking porque no se sabía qué hacer; así, a partir de entonces se puso en marcha el proceso

Udalaren esku, egia da ere Administrazio honek baduela ahalmena baldintza-orri batzuk idazteko eragotziko dutenak "Dragados" bezalako makroenpresek kontratu honen adjudikaziodun izatea.

participativo. Y si bien es cierto que la crisis económica no está en manos del Ayuntamiento, no lo es menos que esta Administración posee la capacidad de redactar unos pliegos de condiciones que impidan que macroempresas como “Dragados” se hagan con este contrato.

**Benitez Dávila jaunak** argitu du kontratua arautzen zuten orriak direla hain zuzen hura suntsitzea ahalbidetu dutenak eta udal teknikariek administraziori mesede egin diezaiokeen kasuistika oro jasotzen dutela. Halaber, adierazi du obra honen ibilbidea kontuan hartuta, oso arretaz egingo dela baldintza-orri berrien idazketa eta bere ustez "Dragados" enpresa ez da aurkeztuko auziaren parte delako.

El **Sr. Benítez Dávila** aclara que los pliegos que regían el contrato permitieron su rescisión y que los técnicos municipales incluyen toda la casuística que pueda favorecer a la administración. Igualmente, manifiesta que, teniendo en cuenta la trayectoria de esta obra, se tendrá sumo cuidado en la redacción de los nuevos pliegos y entiende que la empresa “Dragados” no se prestará ya que es parte del litigio.

Errebaleko Obren Urte Anitzeko Finantzabidea proposamenari buruz Obra Ataleko zuzendariak egin duen txostena eta Funtsen kontu-hartzaileak egindako txostena, biak ikusita,

Vistos el informe del Director de la Unidad de Obras sobre la propuesta de Financiación Plurianual de las Obras de Errebal, y el informe del Interventor de Fondos.

Ondorioz, kontuan hartuta 2018ko urriaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de octubre de 2018.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, bederatzi boto alde (PSE-EE-PSOE), eta hamar abstentzio (Euakal Herria Bildu, EAJPNV eta Irabazi), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de nueve votos a favor (PSE-EE-PSOE), y diez abstenciones (Euskal Herria Bildu, EAJ-PNV e Irabazi), adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

1.- ONESPENA EMATEA “Errebal kultura-ekipamendua eta erabilera askotariko eraikina" obra-proiektuaren urte anitzeko Finantzabide Planaren aldaketari.

1.- APROBAR la modificación del Plan plurianual por el proyecto de obra “Edificio multifuncional y equipamiento cultural <Errebal>” que tiene como consecuencia.

Aurretik hartutako konpromisozko kredituak deuseztatzea.

a) la anulación de los anteriores créditos de compromiso.

| | |
|---|---|
| 2019 urteko KONTSIGNAZIOA 5.0300.601.07.153.20 | 2020 urteko KONTSIGNAZIOA 5.0300.601.07.153.20 |
| 1.820.759,49 € | 1.755.000,00 € |
| CONSIGNACION AÑO 2019 5.0300.601.07.153.20 | CONSIGNACION AÑO 2020 5.0300.601.07.153.20 |
| 1.820.759,49 € | 1.755.000,00 € |

eta, b) konpromisozko kreditu hauek onartzea:

y, b) aprobación de los siguientes créditos de compromiso:

| PARTIDA | IZENDAPENA | Urtea | ZUZKIDURA |
|---|---|---|---|
| 5.0300.601.07.153.20 | ERREBAL ERABILERA ASKOTARIKO ERAIKINA | 2019 | 3.032.500,00 € |
| 5.0300.601.07.153.20 | ERREBAL ERABILERA ASKOTARIKO ERAIKINA | 2020 | 3.796.500,00 € |
| | | | |

| PARTIDA | DENOMINACIÓN | AÑO | DOTACION |
|---|---|---|---|
| 5.0300.601.07.153.20 | EDFICIO MULTIFUNCINAL ERREBAL | 2019 | 3.032.500,00 € |
| 5.0300.601.07.153.20 | EDFICIO MULTIFUNCINAL ERREBAL | 2020 | 3.796.500,00 € |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | |

**9. KIROL PATRONATUAREN AURREKONTUAREN KREDITU GEHIGARRIEN AURRENEKO ESPEDIENTEA.**

**Errasti Bernedo jaunak** adierazi du bere taldeak babestu egingo duela soldata-igoera hori, beti egin duen bezala; baina igoera horiez gain, prest daude Ipuruako kiroldegiko instalazioak hobetzeko eta materiala berritzeko eman behar den babesa emateko, gero eta herritar gehiagoren kexa delako. Zentzu horretan, Euskal Herria Bilduko udal taldea kontziente da Kirolaren Plan Estrategikoa aplikatuko dela eta haren atal garrantzitsu bat kirol azpiegiturak direla, baina, bere ustez, hobekuntza horietako batzuk ezin dira gehiago atzeratu.

Bestalde, iragarri du aldeko botoa emango dutela eguneko gai-zerrendaren hurrengo puntuan, hau da, Nagusien San Andres Egoitzaren Fundazio Publikoaren kreditu gehigarrien bigarren espedienteari buruzkoa.

**9. PRIMER EXPEDIENTE DE CRÉDITOS ADICIONALES DEL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES.**

El **Sr. Errasti Bernedo** expresa que su grupo va a apoyar esta subida salarial, tal y como ha hecho siempre, pero además de esta subida, también están dispuestos a apoyar mejoras en las instalaciones del polideportivo Ipurua y la renovación de su material, dado que se trata de una queja creciente entre la ciudadanía. En este sentido, el grupo municipal de Euskal Herria Bildu es consciente que se va a aplicar el Plan Estratégico del Deporte y que un apartado importante del mismo son las infraestructuras deportivas, pero entiende que alguna de esas mejoras no puede esperar.

Por otra parte, anuncia también el voto favorable al siguiente punto del orden del día referente al segundo expediente de créditos adicionales de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés.

**Garate Larrañaga andreak** ere esan du bere taldeak babestu egingo duela gaia eta azpimarratu du aldarrikatu zuela 2018ko irailaren 12an eta 29an egindako bilkuretan aldarrikatu zuela Kirola Patronatuko langileek merezi zutela atzerapen horiek lehenago kobratu izana.

La **Sra. Garate Larrañaga** afirma igualmente que su grupo respaldará este asunto y destaca que ya reivindicó en los Plenos celebrados el 12 y 29 de septiembre de 2018 que el personal del Patronato de Deportes merecía haber cobrado estos atrasos con anterioridad.

**Aguirre Unceta andreak** adierazi du bere botoa aldekoa izango dela.

La **Sra. Aguirre Unceta** manifiesta su voto favorable.

Beraz, 2018. jardunaldirako Kiroletarako Udal Patronatuaren Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izatera, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

Por tanto, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes para el Ejercicio 2018; se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Kiroletarako Udal Patronatuaren Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien aurreneko espedientearen inguruan Kiroletarako Patronatuaren Presidenteak egin duen proposamena, eta Kontu-hartzaile jaunak espediente horren inguruan egindako txostena ikusita,

Vistos, la propuesta del Presidente del Patronato de Deportes sobre el Primer expediente de créditos adicionales del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes y el informe del Interventor sobre el expediente,

Ondorioz, kontuan hartuta 2018ko urriaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de octubre de 2018.

Udalbatzak, aho batez, honako akordio hau hartzen du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente

## ERABAKIA

## ACUERDO

Kiroletarako Udal Patronatuaren Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien aurreneko espedienteari hasierako onespena ematea, honako zenbateko hauek dituena:

APROBAR inicialmente el Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

**I. FUNTSEN JATORRIA**

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 36.101,00 |
| | **Guztira, gehikuntzen adina** | **36.101,00** |

**II. KREDITUEN GEHIKUNTZA**

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|

RESUMEN POR CAPITULOS

**I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS**

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 36.101,00 |
| | **TOTAL igual a los aumentos** | **36.101,00** |

**II. CREDITOS EN AUMENTO**

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 Pertsonal gastuak. | 36.101,00 | 1 Gastos de personal | 36.101,00 |
| **Kredituen gehikuntza guztira.** | **36.101,00** | **Total créditos en aumento.** | **36.101,00** |

Kreditu Gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin.

Asimismo el presente expediente de Créditos Adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.

**10. SAN ANDRES NAGUSIEN EGOITZA FUNDAZIOA PUBLIKOAREN AURREKONTUKO KREDITU GEHIGARRIEN BIGARREN ESPEDIENTEA.**

**10. SEGUNDO EXPEDIENTE DE CRÉDITOS ADICIONALES DE LA FUNDACIÓN PÚBLICA RESIDENCIA DE ANCIANOS SAN ANDRÉS.**

**Sarasqueta Aramburu andreak** jakinarazi du gai hau joan den ostegunean egin zen San Andres Fundazio Publikoaren Batzarraren bileran aztertu zela.

La **Sra. Sarasqueta Aramburu** pone en conocimiento de este Pleno que este asunto se trató en la reunión de la Junta de la Fundación Pública San Andrés celebrada el pasado jueves.

2018. jardunaldiko San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izatera, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik

Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés para el Ejercicio 2018; se considera la necesidad y urgencia de los

egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren kreditu gehigarrien bigarren espedientearen inguruan Alkateak egin duen proposamena eta, espediente horren inguruan Kontu-hartzaile jaunak egindako txostena ikusita,

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el segundo expediente de créditos adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés, y el informe del Interventor sobre el expediente,

Ondorioz, kontuan hartuta 2018ko urriaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de octubre de 2018.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hamabost boto alde (PSE-EE-PSOE, Euskal Herria Bildu eta Irabazi), eta lau abstentzio (EAJPNV), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de quince votos a favor (PSE-EE-PSOE, Euskal Herria Bildu e Irabazi), y cuatro abstenciones (EAJ-PNV), adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuko kreditu gehigarrien aurreneko espedienteari hasierako ONESPENA EMATEA, honako zenbateko hauek dituena:

APROBAR INICIALMENTE el Segundo expediente de créditos adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. FUNTSEN JATORRIA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 170.000,00 |
| **Guztira gehikuntzen adina** | | **170.000,00** |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonalaren Gastuak | 95.000,00 |
| 2 | Gastu arrunt eta zerbitz | 75.000,00 |
| **Kredituen Gehikuntza guztira** | | **170.000,00** |

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 170.000,00 |
| **TOTAL igual a los aumentos** | | **170.000,00** |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 95.000,00 |
| 2 | Gastos en b. corr. | 75.000,00 |
| **TOTAL Créditos en aumento** | | **170.000,00** |

Kreditu gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin.

Asimismo el presente expediente de créditos adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.

**11. DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEKO PROPOSAMENA ETA DIRU-LAGUNTZA**

**11. PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL ANEXO DEL PLAN ESTRATÉGICO DE**

**IZENDUNEN ERANSKINA ALDATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA LEHIAGUNE.**

**Mendicute Rodriguez jaunak** gogorarazi duenez Eibarko Plan Estrategikoak, beste kontu batzuen artean, zera dio: gure herrian lidergoa falta da, ez dago etorkizuneko proiektu partekaturik, eta ez dakigu ez zer garen ezta etorkizunean zer izan nahi dugun ere, eta horrek guztiak enpresen eta enpleguaren suntsipena dakar. Bere taldean ikusi dute Eibar beti egon dela lotua metalaren eraldaketari: armagintza, josteko makinak, bizikletak, motorrak, gaur egun makina-erreminta edo autoaren industria laguntzaile izenez ezagutzen dena izan da industriaren oinarri, alegia. Hori dela eta, galdetzen du ea zer gertatuko den biharko egunean.

Hala, gaur egungo diagnostikoa hauxe da: lidergoa galdu da ekonomiaren eragile gisa, enpresa-dinamismoa eta ekintzaileak falta dira, dauzkagun azpiegiturak ez dira oso erakargarriak enpresentzat eta ez dago enpresa traktorerik gure herrian; horri guztiari gehitu behar zaio eszenategi berri baten aurrean gaudela, espezializazioaren erronka planteatzen diguna.

**SUBVENCIONES Y DE MODIFICACIÓN DEL ANEXO DE SUBVENCIONES NOMINATIVAS. LEHIAGUNE.**

El **Sr. Mendicute Rodríguez** recuerda que el Plan Estratégico de Eibar afirma, entre otras cuestiones, que en nuestra ciudad falta liderazgo, se da una ausencia de un proyecto de futuro compartido y que no sabemos qué somos y mucho menos que queremos ser en el futuro y ello supone destrucción de empresas y empleo. Desde su grupo observan que desde siempre Eibar ha estado ligado a la transformación del metal mediante la fabricación de armas, máquinas de coser, bicicletas, motos, lo que hoy se conoce como máquina-herramienta o industria auxiliar del automóvil. Por este motivo se pregunta qué sucederá el día de mañana.

Así, el diagnostico actual es que se ha perdido liderazgo como motor económico, faltan dinamismo empresarial y más emprendedores, tenemos infraestructuras poco atractivas para las empresas y se da una falta de empresas tractoras en nuestra ciudad; a todo ello hay que sumar que nos encontramos ante un nuevo escenario tecnológico que nos plantea el reto de la especialización

Diagnostiko hori —6.600 langile batzen dituen berrogeita hamarren bat enpresak partekatua— izan zen Lehiagune sortzea eragin zuena, eskualdeko industria-ekonomia garatzeko xedez, eskualdearen hazkundea eta iraunkortasuna bermatzeko; eta, horregatik, beharrezko ikusten du horrelako gaiak udalerri mailan eztabaidatzea.

Azken batean, gogoeta egin behar da RIS3 gisako gaien inguruan, zer manufaktura-industria behar den, zer teknologia garatu behar ditugun edo zer rol dagokigun herri gisa eta, zentzu horretan, uste dute lidergoa falta dela eta Udal hau noraezean dagoela, Eibar komertzialaren aldeko apustuak huts egin eta gero.

Era berean, Lehiagune networking-gune interesgarri bat da eta udal ekimen falta kontuan hartuta, ezinbestean babestu behar da ekonomia arloan lanean ari den ekimena eta, beraz, bere taldeak puntu honen onarpena babestuko du.

**Errasti Bernedo jaunak** esan du Euskal Herria Bildu udal taldea beti kexatu dela hainbat foro zeudelako helburu bera bilatzen zutenak: Eibarko jarduera

Este diagnóstico compartido por medio centenar de empresas que agrupan a 6.600 trabajadores les llevó a crear Lehiagune con el objetivo de apoyar el desarrollo de la economía industrial en la comarca, para garantizar el crecimiento y la sostenibilidad de la misma, y, por ello, cree necesario debatir este tipo de asuntos a nivel municipal.

En definitiva, se trata de reflexionar sobre asuntos tales como RIS3, qué tipo de industria manufacturera es necesaria, qué tecnologías debemos desarrollar o qué rol nos corresponde como ciudad y, en ese sentido, entiende que falta un liderazgo y que este Ayuntamiento se encuentra a la deriva después del fracaso de la apuesta de Eibar comercial.

Al mismo tiempo, Lehiagune es un punto de networking de interés y dada la falta de iniciativa municipal que menos que apoyar económicamente por quien está trabajando en este ámbito y, por tanto, su grupo apoyará la aprobación de este punto.

El **Sr. Errasti Bernedo** afirma que desde el grupo municipal de Euskal Herria Bildu siempre han expresado su queja por la existencia de diferentes foros

ekonomiko eta industriala sendotzea eta lurraldean haren kokapena hobetzea; eta, era berean, lidergo falta kritikatu dute, bai eta baliabide ekonomiko eta pertsonalak zein energiak xahutzea ere.

que buscaban un objetivo en común: fortalecer la actividad económica e industrial de Eibar y su posicionamiento en el territorio, y, al m ismo tiempo han reprochado la ausencia de liderazgo y que se despilfarrasen recursos económicos, personales y energías.

Lehiaguneko foro honen sorrera, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak dinamizatua, albiste ona da bere taldearentzat, eta, hortaz, babestu egingo dute, ematen duelako faltan botatzen zen lidergo hori bere gain hartuko duela, nahiz eta, bere iritziz, Debegesak hartu behar zuen.

La creación de este foro Lehiagune -dinamizado por la Asociación de Antiguos Alumnos de la Escuela Armería- es una buena noticia para su grupo y, por tanto, lo apoyarán ya que parece que se cubre así ese liderazgo que echaban en falta, que en su opinión debería haber asumido Debegesa.

Seguru asko Lehiagune ez da nahikoa, baina garrantzitsua da; horregatik, berriz ere errepikatu nahi du erakunde guztiek (Eibarko Udala, Debegesa, Gipuzkoko Foru Aldundia, SPRI eta Eusko Jaurlaritza) landu behar dutela Debaberreneko berrindustrializazio-plan eraginkor bat, Gipuzkoako eskualde pobreena garelako eta gure herria Gipuzkoako langabezia-tasa altuenak dauzkana delako. Ondorioz, amaitu du esanez beharrezkoa dela erreferente izatea edo lehen geneukan erreferentzialtasuna berreskuratzea, egoerak oraindik ere txarrera jo dezake eta.

A buen seguro que Lehiagune no es suficiente, pero sí importante, por esa razón insiste en que todas las instituciones (Ayuntamiento de Eibar, Debegesa, Diputación Foral de Gipuzkoa, SPRI y Gobierno Vasco) deben de elaborar un plan efectivo de reindustrialización de Debabarrena porque ya somos la comarca más pobre de Gipuzkoa y nuestra ciudad cuenta con la segunda tasa de paro más alta de Gipuzkoa. En consecuencia, concluye que es necesario erigirse como referencia o recuperar la que teníamos o, incluso, la situación puede empeorar.

**Aguirre Unceta andrea** abstenitu egingo da, bere garaian zalantzan jarri zuelako Udalak jarritako 45.000 euroko hasierako ekarpena, noiz eta zerbitzua eskualde mailakoa denean. Gaur-gaurkoz, ez dago jasota beste inongo udalerrik diruz lagundu behar duenik eta, horregatik, 300.000 euroko ekarpen berri hau ere zalantzan jartzen du.

La **Sra. Aguirre Unceta** se abstendrá porque ya en su momento cuestionó la aportación inicial de 45.000 euros por parte del Ayuntamiento de Eibar, cuando el servicio es comarcal. A día de hoy, no existe constancia de que ningún otro municipio vaya a ayudar económicamente y, por este motivo, cuestiona igualmente esta nueva aportación de 300.000 euros.

**Indarreko alkate-udalburu jauna** bat etorri da EAJ-PNV udal taldeko bozeramaleak egindako hasierako diagnostikoarekin, baina, era berean, azpimarratu du Lehiagune tresna garrantzitsu bat dela; duela bi urte sortu zen, Alkatetzak Enplegu Mahaiaren deialdia egin ondoren; mahaiak 3 zutabe ditu: enplegua, lehiakortasuna eta azpiegiturak, eta bada laugarren bat ere —sektore berriak— fruiturik eman ez duena. Era berean, gogorarazi du enpresa bat kontratatu dela ebaluatzeko zer egin den azken hiru urte hauetan 2015-2018 Plan Estrategikoaren testuinguruan—; aurreratu du gure herriko eragile ekonomikoen iritzia ez datorrela bat oposizioko bozeramaleek esandakoarekin, eta uste du bide onetik doazela.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** muestra su coincidencia con el diagnóstico inicial realizado por el portavoz del grupo municipal de EAJ-PNV pero, al mismo tiempo, destaca que Lehiagune es una herramienta importante que surge hace tres años años a partir de la convocatoria de la Mesa por el Empleo realizada por la Alcaldía; esta mesa se compone de tres patas: empleo, competitividad e infraestructuras y una cuarta –nuevos sectores- que no ha fructificado. Así mismo, recuerda que se ha contratado a una empresa para evaluar lo realizado en estos últimos tres años en el marco del Plan Estratégico 2015-2018, aunque adelanta que el parecer de los agentes económicos de nuestra ciudad no coincide con comentado por los portavoces de la

oposición y que cree que se va por el buen camino.

Dena den, adierazi du Udal honek ez dituela behar diren baliabide eta eskumen guztiak eskura, zeren eta beste administrazio batzuen konplizitatea behar baita eta ez dute beti erantzuten. Azkenik, hurrengo urteetan Lehiagune mundu mailako gune teknologiko bihurtzea nahiko luke.

De todas formas, apunta que este Ayuntamiento no dispone de todos los recursos y competencias necesarios puesto que se requiere la complicidad de otras Administraciones que no siempre responden. Por último, desea que en los próximos años Lehiagune se convierta en un polo tecnológico de referencia mundial.

**Mendicute Rodriguez jaunak** zehaztu du Lehiagune herri honetako errealitate ekonomikoaz kezkatuta dauden enpresarien ekimen bat dela.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** puntualiza que Lehigune es iniciativa de personas empresarias preocupadas por el devenir de la realidad económica de esta ciudad.

**Indarreko alkate-udalburu jaunak** erantzun du pertsona horiek Udalera jo dutela eta modu aktiboan parte hartu dutela Enplegu Mahaian, eta azpimarratu du Eibarko enpresa-ehunaren % 80 baino gehiago enpresa ertain eta txikiak direla, eta, hortaz, erabat beharrezkoa dela ekimena. Pertsona horien lana eskertuz amaitu du.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** replica que esas personas se han dirigido al Ayuntamiento y participado activamente en la Mesa por el Empleo y resalta que más del 80% del tejido empresarial eibarrés son pequeñas y medianas empresas, lo que hace totalmente necesaria su iniciativa. Concluye agradeciendo la labor de estas personas.

Alkatearen proposamena ikusita, 2018rako onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta Diru-laguntza Izendunen Eranskina aldatzeko egindakoa.

Vistas la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año 2018.

Ondorioz, kontuan hartuta 2018ko urriaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de octubre de 2018.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hamazortzi boto alde (PSE-EE-PSOE, Euskal Herria Bildu eta EAJ-PNV), eta abstentzio bat (Irabazi), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de dieciocho votos a favor (PSE-EE-PSOE, Euskal Herria Bildu y EAJ-PNV) y una abstención (Irabazi), adopta el siguiente

## ERABAKIA

Lehenengoa: Eibarko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzea, ondoren aipatuko den diru-laguntza hau jasotzeko:

## ACUERDO

Primero: La modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, incorporando la siguiente línea de subvención,

| DIRU-LAGUNTZA LERROA. | HELBURUAK | BETE NAHI DIREN HELBURUAK | URTEKO KOSTUA | FINANTZA BIDEA: | DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA. |
|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUA: LEHIAGUNE enpresa-foroari laguntzea | Eibarren industria- eta ekonomia-jarduera indartzea eta lurraldean islatzea; Debabarreneko industria- | Enpresa-proiektu eta ekimen proiektu berriak sortzea; enplegua sortzea eta industria- | 300.000 € | Finantzaketa Udalaren beraren funtsekin egingo da Aurrekont | Diru-laguntza mota: izenduna. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ekonomiaren hazkundea iraunkortasuna, lehiakortasuna bermatuz, eskualdearen berezitasunari duen balioa emanez eta Debabarreneko ekonomia eta albo herrietakoa sustatuz. | posizionamendua lortzea lurraldean bertan eta kanpora begira. | | uaren IV. kapituluaren kargu. | |

| LINEA DE SUBVENCION | OBJETIVOS | EFECTOS PRETENDIDOS | COSTE ANUAL | FINANCIACION | PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN |
|---|---|---|---|---|---|
| OBJETO: Apoyo al Foro empresarial LEHIAGUNE | Fortalecer la actividad económica e industrial de Eibar y su posicionamiento en el territorio., además de garantizar la sostenibilidad, competitividad y crecimiento de la economía industrial de Debabarrena, poner en valor la singularidad comarcal y traccionar la economía de Debabarrena y territorios aledaños. | Creación de nuevos proyectos e iniciativas empresariales, creación de empleo y posicionamiento industrial en el territorio y de cara al exterior. | 300.000 € | La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo IV del presupuesto | Tipo de subvención: nominativa |

Bigarrena: Diru-laguntza izendunen eranskinean aldaketa egitea aurreko atalean adierazitako diru-laguntza izendunaren lerro berri hori jasotzeko:

Segundo: Modificar el anexo de subvenciones nominativas del presupuesto en vigor para recoger la nueva línea de subvención:

| DIRU-LAGUNTZA LERROA. | URTEKO KOSTUA. | FUNTZIONALA |
|---|---|---|
| HELBURUA: LEHIAGUNE enpresa-foroari laguntzea | 300.000 € | 433.10 |

| | | |
|---|---|---|
| ONURADUNA: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartea (G20105524) | | |

| LINEA DE SUBVENCION | COSTE ANUAL | FUNCIONAL |
|---|---|---|
| OBJETO: Apoyo al Foro Empresarial LEHIAGUNE<br><br>BENEFICIARIO: Asociación de Antiguos Alumnos de Armeria Eskola (G20105524) | 300.000 € | 433.10 |

**12. DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEKO PROPOSAMENA ETA DIRU-LAGUNTZA IZENDUNEN ERANSKINA ALDATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA. JIU-JITSU TXAPELKETA.**

**Mendicute Rodríguez jaunak** iragarri du bere taldea puntu honen alde dagoela eta, beste antzeko kasu batzuetan bezala, txosten bat izan nahiko lukeela halako ekimenek gure herrian duten inpaktua aztertzeko eta diru-laguntzak etorkizunean hobeto neurtzeko. Azkenik, Judo Kalamua Klubaren lana eskertu nahi du txapelketa honen antolatzaile gisa.

**12. PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL ANEXO DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES Y DE MODIFICACIÓN DEL ANEXO DE SUBVENCIONES NOMINATIVAS. CAMPEONATO JIU-JITSU.**

El **Sr. Mendicute Rodríguez** anuncia el respaldo de su grupo a este punto y, como en otros supuestos similares, le gustaría contar con un informe que permita analizar el impacto económico de este tipo de eventos en nuestra ciudad y poder calibrar así futuras ayudas. Por último, desea agradecer el trabajo del  o Club de Judo Kalamua Judo como organizador de este campeonato.

**Aguirre Unceta andreak** adierazi du abstenitu egingo dela; izan ere, laugarren aldia da txapelketa hau Eibarren egiten dela, hortaz, badirudi beste ezein udalerrik ez duela babestu nahi, eta, horregatik, ez zaio bidezkoa iruditzen beti gure herria izatea diru-gastu hori egiten duena.

La **Sra. Aguirre Unceta** manifiesta que se abstendrá puesto que es la cuarta vez que esta competición se celebra en Eibar, de lo que se deduce que ningún otro municipio desea acogerlo y, por tanto, le parece injusto que siempre tenga que ser nuestra ciudad la que realice ese desembolso.

**Indarreko alkate-udalburu jaunak** ere jakin nahi du zein den erabilitako udal diruaren inpaktu ukigarri zein ukiezina eta, horregatik, Plan Estrategikoaren mahaiak aztertu egingo du. Bere iritziz, esleitutako zenbatekoak ekarpena egiten dio herriari eta bere esku dagoen bitartean, ahalbidetu egingo du txapelketa hori Eibarren egitea, herriari prestigioa ematen diolako.

El **Sr. Alcalde-Presidente** en funciones también desearía conocer cuál es el impacto tangible e intangible del dinero municipal empleado y, por esta razón, se someterá al análisis de la mesa del Plan Estratégico. En su opinión, el importe destinado sí que aporta a la ciudad y siempre que esté en su mano facilitará que este campeonato se celebre en Eibar porque prestigia la ciudad.

**Mendicute Rodríguez jaunak** hitza hartu du harrigarria egiten zaiolako Irabazi udal taldeko bozeramalearen interbentzioa; horren harira, inork ez du zalantzan jartzen Antzerki Jardunaldiak Eibarren egitea eta, bere ustez, Udalaren erantzukizuna da jarduera-agenda bat edukitzea eta erreferente izatea kirol-txapelketen arloan. Azken batean, bere

El **Sr. Mendicute Rodríguez** hace uso de la palabra porque le parece sorprendente la intervención de la portavoz del grupo municipal de Irabazi; en este sentido, nadie cuestiona que las Jornadas de Teatro se celebren anualmente en Eibar y entiende que es responsabilidad del Ayuntamiento contar con una agenda de actividades y ser

taldearentzat halako ekimenak aukera bat dira herriarentzat.

referente también en lo que a competiciones deportivas se refiere. En definitiva, para su grupo este tipo de eventos representan una oportunidad para la ciudad.

**Indarreko alkate-udalburu jaunak**, halaber, nahiko luke ekimen horiek sustapen turistikoa egiteko balio izatea.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** también desea que sirvan para la promoción turística.

Alkatearen proposamena ikusita, 2018rako onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta Diru-laguntza Izendunen Eranskina aldatzeko egindakoa.

Vistas la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año 2018.

Ondorioz, kontuan hartuta 2018ko urriaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de octubre de 2018.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hamazortzi boto alde (PSE-EE-PSOE, Euskal Herria Bildu eta EAJ-PNV), eta abstentzio bat (Irabazi), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de dieciocho votos a favor (PSE-EE-PSOE, Euskal Herria Bildu y EAJ-PNV) y una abstención (Irabazi), adopta el siguiente:

| ERABAKIA | ACUERDO |
|---|---|
| Lehenengoa: Eibarko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzea, ondoren aipatuko den diru-laguntza hau jasotzeko: | Primero: La modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, incorporando la siguiente línea de subvención, |

| DIRU-LAGUNTZA LERROA | HELBURUAK | BETE NAHI DIREN HELBURUAK | URTEKO KOSTUA | FINANTZA BIDEA: | DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA |
|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUA: Laguntza ematea Jiu-Jitsuko Espainiako IV. Koparako, Eibarko Hiria saria. | Kirol-praktika sustatzea, eta, zehazkiago, Jiu-Jitsua. | Hirian pertsona gehiago izatea kirolean aritzen direnak. | 10.000 € | Finantzaketa Udalaren beraren funtsekin egingo da Aurrekontuaren IV. kapituluaren kontura. | Diru-laguntza mota:diru-laguntza izenduna. |

| LINEA DE SUBVENCION | OBJETIVOS | EFECTOS PRETENDIDOS | COSTE ANUAL | FINANCIACION | PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN |
|---|---|---|---|---|---|
| Objeto: Ayuda a la organización de la IV Copa de España de Jiu-Jitsu-Ciudad de Eibar | Fomentar la práctica del deporte, y más en concreto la del Jiu-Jitsu | Incrementar el número de personas que practican deporte en la ciudad. | 10.000 € | La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo IV del presupuesto. | Tipo de subvención: subvención nominativa. |

| | |
|---|---|
| Bigarrena: Diru-laguntza izendunen eranskinean aldaketa egitea aurreko | Segundo: Modificar el anexo de subvenciones nominativas del |

atalean adierazitako diru-laguntza izendunaren lerro berri hori jasotzeko:

presupuesto en vigor para recoger la nueva línea de subvención:

| DIRU-LAGUNTZA LERROA. | URTEKO KOSTUA. | FUNTZIONALA |
|---|---|---|
| HELBURUA: Laguntza ematea Jiu-Jitsuko Espainiako IV. Koparako, Eibarko Hiria saria.<br><br>ONURADUNA: KALAMUA JUDO TALDEA. | 10.000 € | 341.00 |

| LINEA DE SUBVENCION | COSTE ANUAL | FUNCIONAL |
|---|---|---|
| OBJETO: Ayuda a la organización de la IV Copa de España de Jiu-Jitsu- Ciudad de Eibar<br><br>BENEFICIARIO: CLUB DE JUDO KALAMUA | 10.000 € | 341.00 |

## 13. DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA DTA DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA ONARTZEKO PROPOSAMENA: EIBARREN KOKATUKO ENPRESEK EIBARKO LANGABETUAK KONTRATATZEA.

## 13. PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL ANEXO DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES Y APROBACIÓN DE CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA FACILITAR LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS POR PARTE DE EMPRESAS RADICADAS EN EIBAR”.

**Mendicute Rodríguez jaunak** adierazi du PSE-EE-PSOE eta EAJ-PNV udal taldeen arteko aurrekontu-akordioan diru-laguntza horiei bideratutako partida 50.000 eurotan zabaltzeko konpromisoa jasotzen dela.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** indica que en el acuerdo presupuestario entre los grupos municipales de PSE-EE-PSOE y EAJ-PNV se recoge el compromiso de ampliar en 50.000 euros la partida destinada a estas ayudas.

Sarritan hitz egiten da Garapen Ekonomikoaren sailaz, baina Udaleko garapen ekonomikoa oso gai korapilatsua da.

En muchas ocasiones se habla del Departamento de Desarrollo Económico pero el desarrollo económico del Ayuntamiento es una cuestión complicada.

Horregatik, funtsezkoa da enpresei laguntzea aurrera egin dezaten eta lehiakorragoak izan daitezen, bai eta ekintzaileek beren proiektuak buru ditzaten ere. Baina, aldi berean, arazo sozial bat ere badugu, Gipuzkoako langabezia-tasa altuenetako bat dugulako, eta horri aurre egiteko neurriak hartu beharra dago. Kasu honetan, enplegagarritasuna hobetzeko, garapen eta berrikuntza politika bat bezain garrantzitsua da politika sozial bat izatea enpleguari lotua.

Por esta razón, resulta fundamental ayudar a las empresas a para salir adelante y que sean más competitivas, así como ayudar a los emprendedores a llevar a cabo sus proyectos. Pero al mismo tiempo, también tenemos un problema social al contar con una de las tasas de desempleo más altas de Gipuzkoa, lo que requiere impulsar políticas para hacerle frente. En este caso, para mejorar la empleabilidad tan importante como una política del desarrollo económico e innovación es contar con una política social ligada al empleo

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak 2019 eta 2020 urteetarako dituen planen helburua Euskal Autonomia Erkidegoaren langabezia-maila % 10etik behera jaistea da; horretarako, gure herrian 700 lanpostu sortu beharko lirateke. Oso zaila dirudi hori lortzea eta agian beste helburu batzuk ezarri beharko lirateke.

En este contexto, los planes del Gobierno Vasco para los años 2019 y 2020 es reducir el nivel de desempleo de la Comunidad Autónoma Vasca por debajo del 10%, lo que supone crear en nuestra ciudad más de 700 puestos de trabajo, objetivo quizás demasiado complicado que exigiría, fijarse otros objetivos.

Hortaz, bere taldeak babestu egingo ditu aberastasuna eta herritarren enplegagarritasuna hobetzeko balio duten

Por tanto, su grupo apoyará toda propuesta que sirva para crear riqueza y mejorar la empleabilidad de la

proposamen guztiak, gai-zerrendako puntu honen kasuan bezala.

**Lamarain Cobo andreak** adierazi du PSE-EE-PSOE taldeak Eibarko Udala gobernatzen duela eta EAJ-PNVrekin batera Eusko Jaurlaritzako gobernuan dagoela, eta diru-laguntza hau atzerapenez onartzen dela Lanbidek ez dituelako garaiz egin bere gestioak; horregatik guztiagatik, galdetzen dio gobernu-taldeari ea ezin diren halako prozedurak azkartu.

Horrelako diru-laguntzei dagokienez, bere taldeak, halaber, galdetzen du ea inolako jarraipenik egiten den, alegia: zenbat pertsonak jarraitzen duten lanean diru-laguntzak amaitu ondoren, edo kontratu puntualak besterik ez diren; zer kontratu-modalitate sinatzen diren eta zer baldintzatan; izan ere, ez litzateke onargarria izango Udalak era horretako diru-laguntzak ematea langabeak kontratatzeko, eta pertsona horiek modu prekarioan lan egitea.

Hitz batean, informazio hori guztia eskura izateko modu bakarra jarraipen bat egitea da, ikusteko ea diru-laguntza hauen araudian aldaketaren bat sartu behar den urteroko deialdi bakoitzaren aurretik. Nolanahi ere, bere taldearen botoa aldekoa izango da.

ciudadanía, tal y como es el caso de este punto del orden del día.

La **Sra. Lamarain Cobo** indica que el PSE-EE-PSOE gobierna el Ayuntamiento de Eibar y conjuntamente con EAJ-PNV en el Gobierno Vasco y esta ayuda se aprueba con retraso porque Lanbide no ha realizado a tiempo sus gestiones; por todo ello, pregunta al equipo de gobierno si no es posible agilizar este tipo de procedimientos.

En relación con este tipo de ayudas, su grupo también se pregunta si se hace algún tipo de seguimiento, es decir: cuántas personas continúan trabajando una vez agotadas las ayudas o simplemente se trata de contratos puntuales; qué modalidades de contrato se firman y en qué condiciones porque no sería aceptable que el Ayuntamiento concediese este tipo de ayudas para la contratación de personas desempleadas y que éstas trabajasen de forma precaria.

En síntesis, el único modo de disponer de toda esa información es realizar un seguimiento que permitiría constatar antes de cada convocatoria anual si es necesario introducir alguna modificación en la regulación de estas

ayudas. No obstante, el voto de su grupo será afirmativo.

**Aguirre Unceta andreak** adierazi du berak ere aldeko botoa emango duela.

La **Sra. Aguirre Unceta** manifiesta que también votará afirmativamente

**Mendicute Rodríguez jaunak** bi minutuko atsedena eskatu du.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** solicita un receso de dos minutos.

**Jarduneko alkate-udalburu jaunak** proposatu du atseden hori gai-zerrendako 15. gaia eztabaidatu ondoren egitea.

El **Sr. Alcalde-Presidente** en funciones propone conceder ese receso una vez que se haya debatido el punto 15 del orden del día.

Udal taldeetako gainerako bozeramaleek orain arte adierazitakoari erantzunez, argitu du diru-laguntza horiek iaz jarri zirela martxan herriko enpresek pertsona langabetuak kontratatzea laguntzeko helburuarekin. Era berean, defendatu egin ditu enplegagarritasuna hobetzeko egin diren jardueren onurak, Eibarko pertsona langabetuaren profilari egokitzen zaizkiolako.

En respuesta a lo manifestado hasta el momento por los demás portavoces de los grupos municipales, aclara que estas ayudas se pusieron en marcha el pasado año con el fin de ayudar a las empresas locales a que pudieran contratar personas desempleadas. Igualmente, reivindica la bondad de las actuaciones llevadas a cabo para mejorar la empleabilidad ya que se ajustan al perfil de la persona desempleada de Eibar.

Lanbidek bere obligazio-betebeharretan atzeratzeari dagokionez, adierazi du Autonomia Erkidegoko gaur egungo gobernuaren lehentasunetako bat erakunde autonomoa horren

En lo que se refiere al retraso de Lanbide en el cumplimiento de sus obligaciones, indica que una de las prioridades del actual ejecutivo autonómico es la modernización de ese

modernizazioa dela, eta aitortzen du ez dela nahi adina aurreratu; zehatzago, azaldu du Lanbideren deialdia 2018ko ekainaren 20an jaso zela eta eskaerak aurkezteko epea 2018ko uztailaren 13an amaitu zen (Udalak 2018ko uztailaren 10ean aurkeztu zituen). 2018ko uztailaren 20an Udaleko diru-laguntzak aurkeztu ziren eta 2018ko urriaren 16an jaso zena erantzuna; hortaz, 2019ko otsailaren 7ra arte bakarrik dago epea justifikazio-dokumentazioa aurkezteko.

organismo autónomo y reconoce que no se ha avanzado todo lo deseado, en concreto, explica que la convocatoria de Lanbide se recibió el 20 de junio de 2018 y el plazo para presentar las solicitudes finalizaba el 13 de julio de 2018 (el Ayuntamiento la presenta el 10 de julio de 2018). El 20 de julio 2018 se presentaron las subvenciones municipales y se obtuvo la respuesta el 16 de octubre de 2018, por lo que únicamente se dispone hasta el 7 de febrero de 2019 para presentar la documentación justificativa.

Kontratazio-baldintzen jarraipena dela-eta, zehaztasun-maila horretara iritsi nahi luke, baina sailaren lan-kargak ezinezko egiten du.

En cuanto al seguimiento de las condiciones de contratación, desearía llegar a ese nivel de detalle pero la carga de trabajo del departamento lo hace imposible.

Ondorioz, kontuan hartuta 2018ko urriaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de octubre de 2018.

Udalbatzak, aho batez, honako akordio hau hartzen du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

AURRENA.- Diru-laguntzetarako Plan Estrategikoaren Eranskinaren aldaketa onartzea, Eibarren finkatutako enpresek Langabetuak kontratatzeko diru-laguntzak finantzatzeko zenbatekoa gehituz. Diru-laguntza lerro hori hona nola geratzen den:

PRIMERO.- Aprobar la Modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones, en el sentido de incrementar el importe para financiar las “Subvenciones para facilitar la contratación de personas desempleadas por parte de empresas radicadas en Eibar”, quedando la línea de subvención así:

| **DIRU-LAGUNTZA LERROA.** | **HELBURUAK** | **BETE NAHI DIREN HELBURUAK.** | **URTEKO KOSTUA.** | **FUNTZIOA.** | **FINANTZABIDEA:** | **DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUA: Enpresei diru-laguntzak ematea enplegagarritasuna eta kontratazioa hobetzeko.<br><br>Lanbide. | - Enplegu gordina sortzea eta herriko enpresek Eibarko herrian enplegurik ez duten pertsonak kontratatzea. | - Kontratazioa bultzatuta, langabezia-tasa jaistea herrian. | 193.000 € | 241.00 | Finantzaketa Udalaren beraren funtsekin egingo da Aurrekontuaren IV. kapituluaren kargu. | Diru-laguntza mota: Ebaluazio bakoiztua. |

| **LINEA DE SUBVENCION** | **OBJETIVOS** | **EFECTOS PRETENDIDOS** | **COSTE ANUAL** | **FUNCION** | **FINANCIACION** | **PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| OBJETO: Subvención a empresas por acciones de mejora de empleabilidad y contratación<br><br>(LANBIDE) | Creación neta de empleo y contratación por parte de las empresas locales de personas desempleadas en el municipio de Eibar | Disminución de la tasa de paro en la localidad fomentando la contratación | 193.000 € | 241.00 | La financiación se llevará a cabo con fondos propios y con Lanbide, con cargo al capítulo IV del presupuesto | Tipo de subvención: evaluación individualizada |

BIGARRENA: ONARTZEA gastua, 193.000,00 eurokoa, “1.1000.471.06.241.00 Udal laguntza Beste empresa batzuei” izeneko partidari egotziko zaiona. Partida hori udal honek indarrean duen aurrekontuarena da eta diru-laguntza horiek ematetik sortuko diren gastuei erantzuteko erabiliko da.

SEGUNDO: APROBAR un gasto por importe de 193.000,00 € con cargo a la partida “1.1000.471.06.241.00 A empresas” –Acciones mejora empleabilidad y contratación-, del vigente presupuesto de la Corporación para atender a los gastos que se deriven de la concesión de las subvenciones.

HIRUGARRENA: ONARTZEA diru-laguntzaren deialdia eta Oinarriak, Eibarko Udalak, “Eibarren finkatutako enpresek langabetuak kontratatzeko” prozedura, zuzeneko diru-laguntzak banakako ebaluazio araubidez emateko deialdiaren testua espedienteari txertatu zaizkio.

TERCERO: APROBAR la convocatoria que incorpora las Bases de subvenciones reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de “Subvenciones para facilitar la contratación de personas desempleadas de Eibar en el mercado ordinario por parte de empresas locales”, mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada.

(Hogeita bat eta hogeita hamabostak izanik, **Jarduneko alkate-udalburu jaunak** atsedena egiteko baimena eman du; saioa hogeita bat eta berrogeian hasiko da).

(Siendo las veintiuna horas y treinta y cinco minutos, el **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** concede un receso, reanudándose la sesión a las veintiuna horas y cuarenta minutos).

**14. GIPUZKOAKO TAXILARIEN ELKARTEAK EGINDAKO**

**14. PROPUESTA DE LA ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DEL**

**PROPOSAMENA 2019KO TARIFAK ONARTZEKO.**

Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak egin duen idatzian azaltzen du, egindako azterketa ekonomikoaren arabera eta jarduera horretan aritzeak dakarkien kostuaren gehiegizko igoera kontuan hartuta, datorren urterako —2019— tarifak berrikusteko proposamena egin duela tarifok Deba Beheko eskualdearen esparru osoan aplikatzeko.

Ondorioz, kontuan hartuta 2018ko urriaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hamalau boto alde (PSE-EE-PSOE eta Euskal Herria Bildu), eta bost abstentzio (EAJPNV eta Irabazi), ondokoa erabaki du:

**ERABAKIA**

AURRENA: 2019rako aurkeztutako proposamena ONARTZEA, beraz, Eibarko

**TAXI DE APROBACIÓN DE TARIFAS DE AUTO TAXI, PARA EL AÑO 2019.**

La Asociación Gipuzkoana del Taxi expone en su escrito que según el estudio económico realizado y teniendo en cuenta también el desmesurado incremento del coste de desempeño de la actividad, ha realizado una propuesta de revisión de tarifas para el próximo año 2019 para aplicarla al ámbito de la comarca del Bajo Deba.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de octubre de 2018.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de catorce votos a favor (PSE-EE-PSOE y Euskal Herria Bildu), y cinco abstenciones (EAJ-PNV e Irabazi), adopta el siguiente

**ACUERDO**

PRIMERO: APROBAR para el año 2019 la propuesta presentada lo que

Udalak onetsi zituen azken taxi-tarifak % 2,3 igotzea.

supone 2,3 % de la última tarifa de taxi aprobada por el Ayuntamiento de Eibar

| 2019rako TARIFA PROPOSAMENA / PROPUESTA TARIFA URBANA 2019 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| TARIFA 1*/ 1. TARIFA | | | 2. TARIFA / TARIFA 2** | | |
| GUTXIENEKO TARIFA / Tarifa Mínima | EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZEKO / Kilómetro recorrido | ITXARON-ORDUA /Hora de espera | GUTXIENEKO TARIFA / Tarifa Mínima | EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZA / Kilómetro recorrido | ITXARON-ORDUA / Hora de espera |
| 5,2127 | 1,3053 | 17,4469 | 5,6760 | 1,4447 | 18,3458 |

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

La tarifa mínima incluye 1,5 Km. De recorrido o cinco minutos de espera.

(*) Tarifa hori lanegun edo astegunetan aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas.

(**) Tarifa hori egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Bestalde, II. Tarifa hori, domeketan goizeko 7etatik gaueko 10etara (07:00-22:00), eta autonomia eta tokiko arautegian finkatutako jai egunetan aplikatuko da, baita, zapatuetan, eta abenduaren 24an eta 31n.

(**) Esta tarifa será aplicable todos los días desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados, y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.

BIGARRENA: espedientea Debegesara bidaltzea.

SEGUNDO: Remitir el expediente a Debegesa.

**15. BATERAGARRITASUNA: KONTU-HARTZAILE LANPOSTUA ETA EHU-UPVKO IRAKASLE.**

Antolaketa eta Langileria zuzendari andreak egindako txostena aztertu ondoren, Langileriako Lan Batzordeak proposamen hau egiten dio Udal Osoko bilkurari:

Abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 4.1 eta 16.3 artikuluen arabera, Administrazio Publikoen Zerbitzurako Langileen Bateraezintasunei buruzkoa, kontu-hartzaile lanpostua bateragarria da unibertsitate-irakasle elkartuaren lanpostuarekin, izan ere, kontu-hartzaileak bere soldata-osagarriaren % 25 horren barruan bateraezintasun-faktorea sartuta eduki arren, legeak hortik kanpo uzten ditu irakasle elkartuak. Horrez gain, ordutegi aldetik ez dago kointzidentziarik.

Ondorioz, kontuan hartuta 2018ko urriaren 23ko Langileria Lan Batzordearen aldeko irizpena

**15. COMPATIBILIDAD PUESTO DE INTERVENTOR Y PROFESOR DE LA UPV.**

Visto el informe de la Directora de Organización y Personal, la Comisión de Trabajo de Personal propone para Pleno

De acuerdo, con el artículo 4.1 y 16.3 de la Ley 53/1984 de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, el puesto de interventor es compatible con el puesto de profesor asociado, ya que a pesar de tener retribuido el factor de incompatibilidad dentro de su complemento del 25%, la ley exceptúa el caso de los profesores asociados. Además no hay coincidencia de horarios.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Personal de 23 de octubre de 2018.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, bederatzi boto alde (PSE-EE-PSOE), eta hamar abstentzio (Euakal Herria Bildu, EAJPNV eta Irabazi), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de nueve votos a favor (PSE-EE-PSOE), y diez abstenciones (Euskal Herria Bildu, EAJ-PNV e Irabazi), adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

David García Castro jaunari bateragarritasuna ematea kontu-hartzaile lanpostua irakasle elkartu lanpostuarekin batera aritzeko.

OTORGAR la compatibilidad a D. David García Castro del puesto de interventor con el puesto de profesor asociado.

**Garate Larrañaga andreak** azaldu du kontu-hartzaile lanpostuak dedikazio esklusiboa daukala esleitua, eta, bere iritziz, argi dago helburua ez dela ekonomikoa; gainera, kasu hau indarreko legeak jasotzen du. Dena den, bere taldea abstenitu egingo da botazioan.

La **Sra. Garate Larrañaga** expone que el puesto de Intervención tiene asignada dedicación exclusiva y parece claro que el objetivo no es económico, además de encontrarse este supuesto amparado por la legislación vigente. De todas formas, su grupo se abstendrá en la votación correspondiente.

**Benítez Dávila jaunak** esan du bere taldea alde dagoela, zeren udal langileak jarduera batera dedikatzeak hobetu egiten baitu zerbitzuaren prestazioa, eta ez da bateraezina etxe honi izan behar dion dedikazioarekin.

El **Sr. Benítez Dávila** muestra el parecer favorable de su grupo porque el hecho de que empleados municipales se dediquen a actividad mejora la prestación del servicio y no es incompatible con la dedicación que debe tener a esta casa.

**Jarduneko alkate-udalburu jaunak** uste du ezagutza-zentroek gazteei irakasteko gure langileengana jotzeak prestigioa ematen diola Udalari eta, hortaz, beti egongo direla halako bateragarritasunen alde.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** entiende que centros de conocimiento reclamen a nuestro personal para enseñar a los más jóvenes prestigian al Ayuntamiento y, por tanto, siempre estarán a favor de este tipo de compatibilidades.

**16. IRABAZI TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ALDAKETA KLIMATIKOAREN KONTRAKO BORROKA ETA TRANTSIZIO EKOLOGIKOKO PLANA.**

**16. MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI: LUCHA CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO Y PLAN DE TRANSICIÓN ECOLÓGICA.**

**Aguirre Unceta andreak** iragarri du erretiratu egiten duela bere izenean aurkeztutako mozioa.

La **Sra. Aguirre Unceta** anuncia la retirada de la moción presentada en nombre de su grupo.

**17. IRABAZI TALDEAK AURKEZTU DUEN MOZIOA: TEILATU-GAIN EDO ESTALKI BERDEAK.**

**17. MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI: CUBIERTAS VERDES.**

**Aguirre Unceta andreak** azaldu du estalki berdeek eraikinetan euri-uraren % 80raino xurgatzen dutela eta, hortaz, oso onuragarriak direla uholdeak prebenitzeko;

La **Sra. Aguirre Unceta** expone que las cubiertas verdes en los edificios absorben hasta el 80 por ciento del agua de lluvia por lo que son muy beneficiosas

halaber, eraikinak UV izpietatik babesten dituztenez, hirietako tenperaturak murrizten dituzte, eta, ondorioz, baita berotzeko eta hozteko sistemen energia-kontsumoa murriztu ere; eta, azkenik, hirietan airearen kalitatea hobetzen dute, baina batez ere hiri-inguruneetan $CO_2$ igorpenak murrizten dituzte.

para prevenir inundaciones; asimismo, protegen las edificaciones de los rayos UV por lo que reducen las temperaturas urbanas con la consecuente disminución del consumo de energía para calefacción y refrigeración y mejorar la calidad del aire en las ciudades, pero sobre todo ayudan a disminuir las emisiones de $CO_2$ en entornos urbanos.

Horregatik, proposatzen du Eibarko Udaleko Udalbatzak Udal Gobernuari exijitzea azterketa bat egin dezan ikusteko ea posible den estalki berde bat jartzea “Errebaleko funtzio anitzeko eraikinaren eta ekipamendu kulturalaren proiektu eraberrituan” aurreikusita dagoenaren ordez, oraintxe aztertu baitira hura amaitzeko aldaketak.

Por ello, propone que el Pleno del Ayuntamiento de Eibar inste a al Gobierno Municipal a realizar un estudio de la capacidad potencial de implementar una cubierta verde, en lugar de la proyectada en el “Proyecto reformado de edificio multifuncional y equipamiento cultural Errebal”, ahora que se han estudiado las modificaciones para su finalización.

Era berean, Eibarko Udaleko Udalbatzak Udal Gobernuari exijituko lioke Hiri Antolaketarako Plan Nagusiaren berrikusketan Eibarko eraikuntza berrietan estalki berdeak jartzeko aurreikustea.

Del mismo modo, este Pleno instaría al Gobierno Municipal a introducir en la revisión al Plan General de Ordenación Urbana, la implementación de cubiertas verdes en las nuevas edificaciones de Eibar.

Eta, azkenik, aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan, planteatzen du Udal Gobernuak azterketa tekniko bat egin dezala, ezagutzeko zer aukera dauden biomasa-berokuntza sistema bat jartzeko —eta ez planteatutakoa—, eraikin berri

Y, por último, dentro de la lucha contra el cambio climático, plantea que se el Gobierno Municipal elabore un estudio técnico para conocer las posibilidades reales de colocar un sistema de calefacción-biomasa, a diferencia del planeado, para apoyar la

horretan ekonomia berdea eta iraunkorra babesteko.

Bestalde, galdetu du ea aukerarik dagoen mozioaren puntu desberdinak bakoitza bere aldetik bozkatzeko.

economía verde y sostenible en ese nuevo edificio.

Por otra parte, pregunta si existe alguna propuesta para votar por separado los diferentes puntos de la moción.

**Jarduneko alkate-udalburu jaunak** erantzun du ez dela aukera hori planteatu.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** responde que en principio no se ha planteado esa posibilidad.

**Mendicute Rodríguez jaunak** eskatu du mozioaren 1. eta 3. puntuak batera bozkatzea eta 2. puntua bereizita, proposamenak aztertzea merezi duela uste baitu eta bere baitan hartzen dituen neurriak laster hasiko den Hirigintza Antolamenduaren Plan Nagusiaren aldaketaren testuinguruan azter litezke. Bestalde, bere taldea ez dago ados biomasa-sistema bat sartzeko Errebaleko proiektua aldatzearekin, eta, are gutxiago, estalkiaren diseinua aldatzearekin; izan ere, proiektu hori prozesu parte-hartzaile baten fruitu da, non alderdi hori jasota zegoen.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** solicita que los puntos 1 y 3 de la moción de referencia se voten conjuntamente y el punto 2 de forma separada porque la propuesta le parece digna de estudio y las medidas que incluye podrían estudiarse en el marco de la modificación del Plan General de Ordenación Urbana que se iniciará próximamente. Por otro lado, su grupo no está de acuerdo en modificar el proyecto de Errebal para la inclusión de un sistema de biomasa y, mucho menos, para la modificación del diseño de la cubierta, ya que dicho proyecto es fruto de un proceso participativo donde precisamente ya se incluía ese aspecto.

Hortaz, Irabazi taldeak aurkeztutako mozioaren puntuak aparte bozkatzea

Por todo ello solicita la votación separada de los puntos de la moción presentada por el grupo municipal de

eskatu du, eta, beren kasuan, mozioaren bigarren puntuaren alde egingo lukete.

Irabazi y, en su caso, respaldarían el segundo punto de la misma.

**Lamarain Cobo andreak** azaldu du Euskal Herria Bilduko udal taldea ez dagoela ados mozioaren lehen puntuarekin, ez duelako errespetatzen prozesu parte-hartzailearen emaitza. Prozesu horren ondorio garbi bat zen Errebaleko eraikinaren estalkia gardena izan behar zela argia eta eguzkiaren berotasuna aprobetxatzeko eta, hala, energia aurreztu.

La **Sra. Lamarain Cobo** expone que el grupo municipal de Euskal Herria Bildu no está de acuerdo con el primer punto de la moción puesto que no respeta el resultado del proceso participativo. Una consecuencia clara de dicho proceso era que la cubierta del futuro edificio de Errebal debe de ser transparente para poder aprovechar la luz y el calor del sol y, así, ahorrar energía.

Bigarren puntuari dagokionez, bere taldeak ez du hasieratik baldintzatu nahi Hirigintza Ordenamenduaren Plan Nagusiaren berrikuspena, nahiz eta bat egiten duten estalki berdeen filosofiarekin. Haien iritziz, arretaz aztertu beharko litzateke eraikin berriek estalki berdea izateko exijentzia, eta, argitu, esaterako, ea eraikin mota guztietan exijitu behar ote den —eraikin publiko zein pribatuetan—.

En lo que al segundo punto se refiere, su grupo no pretende condicionar desde un principio la revisión del Plan General de Ordenación Urbana, a pesar de que comparten la filosofía que encierran las cubiertas verdes. A su entender, habría que estudiar con detenimiento la exigencia de que las nuevas edificaciones cuenten con cubierta verde, y, por ejemplo, aclarar si debe exigirse en todo tipo de edificios –públicos y privados-.

Azkenik, eta, hirugarren puntuari dagokionez, badirudi Errebaleko eraikinean biomasa-galdara bat jarriko dela, Ingurumen eta Obra batzordeetan berek eskatu duten bezala.

Por último, y en relación con el tercer punto, parece ser que en el edificio de Errebal se instalará una caldera de biomosa, tal y como han reivindicado en las Comisiones de Medio Ambiente y de Obras.

**Benítez Dávila jaunak** azpimarratu du lehen puntuari buruz parte hartu duten taldeen kointzidentzia, zeren, prozesu parte-hartzaile bat artikulatzen bada, haren ondorioak errespetatu behar baitira.

El **Sr. Benítez Dávila** destaca la coincidencia de los grupos que han intervenido en torno al primer punto puesto que, si se articula un proceso participativo, deben respetarse sus conclusiones.

Bigarren puntua dela-eta, aitortzen du badirela eraikuntza bereziak estalki berdedunak (eta hala proposatu zitzaion ospitale berriaren proiektua idatzi zuen taldeari), baina zehaztu du ondo aztertu beharko litzatekeela nola jaso exijentzia hori Hirigintza Antolamenduaren Plan Nagusian eta zer eraikin motari exijitu. Proposamenaren eduki ekologikoa gorabehera, ez du bat egiten eztabaida honen xede den mozioan egiten den planteamenduarekin.

Sobre el segundo punto, reconoce que existen edificaciones singulares con una cubierta vegetal (y así se propuso al equipo redactor del nuevo hospital), pero matiza que habría que analizar con detenimiento cómo se recoge esa exigencia en el Plan General de Ordenación Urbana y a qué tipo de edificios se exigiría. A pesar del contenido ecológico de la propuesta, no comparte el planteamiento que se hace en la moción objeto del presente debate.

Eta hirugarren puntuari dagokionez, Errebaleko proiektua idatzi duen taldeari eskatu dio biomasa-berokuntza sistema bat sar dezan, Euskal Herria Bildu udal taldeak eskatu zuen bezala; sistema horren makinak lehen solairuko parkingeko trastelekuen inguruan kokatuko litzateke.

Y en lo que al punto tercero se refiere, ha solicitado al equipo redactor del proyecto de Errebal que introduzca un sistema de calefacción por biomasa, tal y como solicitó el grupo municipal de Euskal Herria Bildu; la maquinaria de este sistema se ubicaría en la zona de trasteros del parking de la primera planta.

Hitz batean, iragarri du bere taldeak aurkako botoa emango duela

En definitiva, anuncia el voto en contra de su grupo.

**Aguirre Unceta andreak** gogorarazi du proposamen hau Errebaleko proiektuaren azterketatik sortu zela; izan ere, bera ez zuen konbentzitzen estalki gardenaren azkeneko diseinua, sortuko zituen garbitasun- eta berotasun-arazoengatik. Halaber, estalki berde bat jartzeak naturarekiko harremana berreskuratzea ahalbidetzen du, eta, zentzu horretan, atsegina da herritarrentzat. Horrekin lotuta, adierazi du ospitale berriaren terrazan berdegune bat egokitzea nahi izango zukeela.

La **Sra. Aguirre Unceta** recuerda que esta propuesta surgió a partir del análisis del nuevo proyecto de Errebal, puesto que no le convencía el diseño final de la cubierta transparente por los problemas de limpieza y de concentración de calor que generaría. Así mismo, la inclusión de una cubierta verde resultaría agradable a la ciudadanía lo que permitiría recuperar el contacto con la naturaleza. A este respecto, señala que habría deseado que se hubiera acondicionado una zona verde en parte de la terraza del nuevo hospital.

Jarraitu du esaten bere proposamenak ez duela esan nahi estalki berdeak Eibarko eraikin guztietan sartu behar denik; haien instalazioa sustatu nahi da, gauza berria da-eta.

Continúa su réplica aclarando que su propuesta no supone que las cubiertas verdes deban de incluirse en todos los edificios de Eibar, sino que se trata de impulsar su implementación, dado el carácter novedoso de las mismas.

**Benítez Dávila jaunak** zehaztu du mozioan hitzez hitz jasotzen dela “estalki berdeak jartzea Eibarko eraikin berri guztietan” eta berriz ere errepikatu du herritarren prozesu parte-hartzailearen ondorioek izaera loteslea dutela. Halaber, aitortu du hasieran aurreikusita ez zegoen horma berde bat diseinatuko dela, baina estalki berdea proiektuaren aldaketa

El **Sr. Benítez Dávila** puntualiza que en la moción se recoge literalmente “la implementación de las cubiertas verdes en las nuevas edificaciones de Eibar” e insiste en el carácter vinculante de las conclusiones del proceso participativo entre la ciudadanía. Al mismo tiempo, reconoce que se va a diseñar un muro verde no previsto

nabarmena bat izango litzateke. Horren harira, esan du aldaketa nabarmenak ez liratekeela jasota egongo "Dragados" enpresari ordaindu beharko litzaiokeen balizko kalte-ordainean, baldin eta epaitegiak hala ezarriko balu.

inicialmente, pero la cubierta verde sí que representaría una modificación sustancial de dicho proyecto. A este respecto, aclara que las modificaciones sustanciales no estarían comprendidas en la posible indemnización que habría que abonar a la empresa “Dragados” en el que caso que así lo determinase el tribunal.

**Mendicute Rodríguez jaunak** zehaztu du prozesu parte-hartzailearen aginduak ere jasotzen duela atetik sartzea eta merkatu-plaza egotea, eta jakin nahi du eta proposatu duen taldeak ontzat jotzen duena mozioaren puntuak bereizita bozkatzea.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** matiza que el mandato del proceso participativo también incluye entrar por la puerta y que exista plaza del mercado y desea saber si el grupo proponente admite votar los puntos de la moción por separado.

**Benítez Dávila jaunak** erantzun du dagoen agindua dela merkatu-plazan egingo dena.

El **Sr. Benítez Dávila** responde que el mandato existente es el que se va a llevar a cabo en la plaza del mercado.

**Indarreko alkate-udalburu jaunak** adierazi du lehen eta hirugarren puntuak batera bozkatuko direla eta bigarren puntua aparte.

El **Sr. Alcalde-Presidente** en funciones establece que los puntos primero y tercero se votarán conjuntamente y el segundo punto de forma separada.

Lehenik, mozioaren lehen eta hirugarren puntuak bozkatu dira. Aldeko boto bat (Irabazi), aurkako hamalau boto (PSE-EE-

Sometidos a votación en primer lugar, los puntos primero y tercero de la moción, el Pleno de la Corporación, con

PSOE eta Euskal Herria Bildu), eta lau abstentzio (EAJ-PNV); Udalbatzak lehen eta hirugarren puntuak ez onartzea erabaki du.

un voto a favor (Irabazi), catorce votos en contra (PSE-EE-PSOE y Euskal Herria Bildu), y cuatro abstenciones (EAJ-PNV), acordó no aprobar el punto primero y tercero.

Bigarrenik, mozioaren bigarren puntua bozkatu da. Aldeko 5 boto bat (Irabazi eta EAJ-PNV), aurkako hamalau boto (PSE-EE-PSOE eta Euskal Herria Bildu); Udalbatzak bigarren puntua ez onartzea erabaki du.

Sometido a votación en segundo lugar, el punto segundo de la moción, el Pleno de la Corporación con cinco votos a favor (Irabazi y EAJ-PNV), catorce votos en contra (PSE-EE-PSOE y Euskal Herria Bildu), acordó no aprobar el punto segundo.

**18. EAJ-PNV TALDEAK AURKEZTU DUEN MOZIOA, EIBAR KEK PROPOSATUTAKO KIROL-INSTALAZIOAK HARTZEKO PLANEAMENDUA ALDATZEARI BURUZKOA.**

**18. MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EAJ-PNV RELATIVA A LA MODIFICACIÓN DE PLANEAMIENTO PARA ACOGER LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS PROPUESTAS POR LA SD EIBAR.**

**Mendicute Rodríguez jaunak** iragarri du erretiratu egiten duela bere taldearen izenean aurkeztutako mozioa.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** anuncia la retirada de la moción presentada en nombre de su grupo.

**19. EH BILDU, IRABAZI ETA EAJ-PNV TALDEEK BATERA AURKEZTU DUTEN MOZIOA AITORMEN PUBLIKOAK ARAUTZEKO.**

**19. MOCIÓN CONJUNTA DE LOS GRUPOS EH BILDU, IRABAZI Y EAJ-PNV PARA REGLAMENTAR LOS RECONOCIMIENTOS PÚBLICOS.**

**Errasti Bernedo jaunak** esan du oposizioaren hiru taldeek eskatutakoa oso logikoa dela; izan ere, Txopitea eta Pakea saria Udalak ematen duen aipamen bat baldin bada, berak galdetzen du ea zergatik erabaki dezakeen bakarrik PSE-EE-PSOEko gobernu-taldeak. Bere iritziz, Udalak emandako sari bat izanik, gainerako udal taldeek ere akordio horretan parte hartu beharko lukete. Oraingo prozedura ulertuko litzateke, baldin eta gobernu-taldeak gehiengoa balu, aurreko agintaldietan gertatu den bezala, baina egoera aldatu egin zen 2015ean, eta ezinbestekoa da akordioak bilatzea.

El **Sr. Errasti Bernedo** afirma que lo solicitado por los tres grupos de la oposición es perfectamente lógico puesto que, por ejemplo, si el galardón Txopitea eta Pakea es una distinción que otorga el Ayuntamiento, se pregunta por qué razón solamente lo puede decidir el equipo de gobierno del PSE-EE-PSOE. En su opinión, al ser una distinción otorgada por el Ayuntamiento, el resto de grupo municipales debería participar en ese acuerdo. La actual forma de proceder se entendería si el equipo de gobierno ostentase la mayoría, tal y como ha sucedido en anteriores mandatos, pero la situación cambió en el año 2015 y es necesario buscar acuerdos.

Halaber, ezagutu nahi luke zein den saria emateko erabiltzen den irizpidea eta beharrezko ikusten du horren inguruko araudi bat idaztea edo dagoena, 1962koa dena, eguneratzea. Gaur egungo egoera beste adibide bat da partiduaren (PSE-EE-PSOE) eta erakundearen (Eibarko Udala) arteko nahasketaz, izan ere, zalantzak sortzen dira ea saria ematen duena PSE-EE-PSOE den edo Eibarko Udala den.

Igualmente, desearía conocer el criterio que se sigue para otorgar ese premio, y ve necesario redactar un reglamento al respecto o actualizar el existente que data de 1962. La situación actual supone un ejemplo más de solapamiento entre partido (PSE-EE-PSOE9 e institución (Ayuntamiento de Eibar), generando dudas sobre si quien entrega el galardón es el PSE-EE-PSOE o el Ayuntamiento de Eibar.

Hogeita hamar urteko bat-egite ildo horretan kokatuko litzateke buzoietara iritsi den ospitaleko esku-orria; eta, horren

En esta misma línea de treinta años de solapamientos se situaría el folleto sobre el hospital que ha sido

harira, bere taldeari zalantza batzuk sortzen zaizkio.

PSE-EE-PSOEk buzoneatutako esku-orria da? Hala bada, zergatik ez darama bere logotipoa azalean eta bai, ordea, Udalarena?

Zeinek dio "Eibar eginez"? PSE-EE-PSOE edo Eibarko Udalak?

PSE-EE-PSOEk ordaindu du Udalaren logotipoa erabiltzeko tasagatik?

Laburbilduz, ez du uste gauzak egiteko modu horrek asmorik ez duenik; aitzitik, badirudi herritarrak nahastu nahi direla helburu elektoralista batekin. Horregatik guztiagatik, halako praktikak amaitu egin behar dira, bestela, gogoraraztera derrigortuta egongo dira.

buzoneado; a este respecto a su grupo se le plantean una serie de dudas:

¿Se trata de un folleto buzoneado por el PSE-EE-PSOE? En caso afirmativo, ¿por qué no lleva su logotipo en la portada y sí el del Ayuntamiento?

¿Quién afirma "Haciendo Eibar"? ¿El PSE-EE-PSOE o el Ayuntamiento de Eibar?

¿Ha abonado el PSE-EE-PSOE la tasa por la utilización del logotipo del Ayuntamiento?

En resumen, no cree que esta forma de proceder carezca de intención, si no que más bien se persigue confundir a la ciudadanía con un objetivo electoralista. Por todo ello, estas prácticas claman al cielo y tienen que acabar porque, en caso contrario, se verán en la obligación de recordarlo.

**Aguirre Unceta andrea** ados dago ospitaleko esku-orriari buruz esandakoarekin eta nahiko luke, ezen, gaur eztabaidatzen diren kontuak edo beste batzuk, hala nola Indonesiara 2.000 euroko ekarpena egitea, gainerako udal taldeekin adostea.

La **Sra. Aguirre Unceta** muestra su acuerdo con lo manifestado sobre el folleto acerca del hospital y desearía que cuestiones como la que hoy se debate u otras, como puede ser la aportación de 2.000 euros a Indonesia, se acuerden con los demás grupos municipales.

**Garate Larrañaga andreak** adierazi du mozioaren edukia argia eta laburra dela. Azalpenean esaten da aitortzak gure

La **Sra. Garate Larrañaga** manifiesta que el contenido de la moción es claro y conciso. En la exposición se

gizartean sustraituta dagoen gai bat dela, eta arrazoi ugari eta desberdinengatik ematen direla. Sari horiek, gainera, erakundeek ematen badituzte, bere taldeak uste du autu hori kontu handiz hautatu beharko litzatekeela; osterantzean, arriskua dagoelako pentsatzeko klase politikoak —hain gutxietsia herritarren artean— aukera hori kutsu politiko, alderdikoi edo elektoralistarekin egiten duela, eta, horrekin aditzera emanez, balioa duen zerbait eman ordez, aitortu ordez, hura gutxietsiz.

dice que los reconocimientos son un hecho arraigado en nuestra sociedad, y que se otorgan por muchos y variados motivos. Si estos, además, son otorgados desde las instituciones, su grupo cree que la opción debería ser escrupulosamente elegida, pues, si no es así, se corre el riesgo que se pueda pensar que la clase política, ya tan denostada entre la población, lo hace con cierto carácter o sesgo político, partidista o electoralista, significando que en lugar de otorgar algo que tiene valor, lejos de reconocerlo se minusvalore, con lo que eso significa.

Bere iritziz, aukerarik garbiena eta onena dokumentu edo araudi bat egitea da, aitortzaren edo sariaren arrazoi eta berezitasunak jasoko dituena, beste udalerri eta euskal erakunde askotan egin den bezala. Horren adibide ezagun bat Donostiako Urrezko Danborrarena da; aspalditik ematen den aitortza bat izan arren, haren araudia nabarmen aldatu da herritarren eskaerei egokitzeko, eta orain herritarrek zuzenean parte hartzen dute. Hori jarraitu beharreko eredu bat izan liteke, alegia, gobernuan dagoena dagoela, onartutako araudiari egokitu behar zaio, alkatearen edo gobernuan dagoen politikoaren erabakiaren mende egon barik.

A su entender, lo más limpio y la mejor opción es articular un documento o normativa que recoja, los motivos y peculiaridades del reconocimiento u otorgamiento, tal y como se ha hecho en otros muchos municipios e instituciones vascas. Un ejemplo, reciente y conocido sería el Tambor de Oro de San Sebastián, que a pesar de ser un reconocimiento que se otorga desde hace muchos años, su reglamento se ha visto modificado de manera ostensible al ser otorgado con la intervención directa de la ciudadanía, adecuándose a las demandas de la misma. Este podría ser un modelo a seguir, de manera que gobierne quien gobierne, debe de ceñirse al reglamento aprobado, sin la

eventualidad u ocurrencia del Alcalde o político de turno.

Jarraitu du esaten Eibar ez dela inolako partidu politikoaren ondare. Hori da EAJ-PNV udal taldeak gaiari buruz duen jarrera eta horregatik mozio horren aldeko botoa emango dute.

Continúa su intervención afirmando que Eibar no es patrimonio de ningún partido político. Esta es la posición del grupo municipal de EAJ-PNV al respecto y el motivo por el que votarán a favor de esta moción.

Amaitzeko, adierazi du Eibarren "Txopitea eta Pakea" entzuten denean denek nahi dutena dela Oteizaren eskultura dagokion lekuan kokatzea, Oteizak berak aukeratu zuen lekuan: Coliseo parean.

Para acabar, comenta que lo que realmente todos en Eibar desean cuando se escucha "Txopitea eta Pakea" es que la escultura de Oteiza se ubique en el lugar que le corresponde, el lugar que el mismo Oteiza eligió: frente al Coliseo.

**Benítez Dávila jaunak** harridura adierazi du, ez hainbeste mozioaren edukiagatik baizik eta haren berri bere taldeari ez emateagatik.

El **Sr. Benítez Dávila** se extraña, no tanto del contenido de la moción, como de que no se haya hecho partícipe de la misma a su grupo.

Gaur arte, dagoen araudi bakarra 1962koa da, Seme-alaba Kutunei, Ohorezko Seme-alabei eta Urrezko Dominei buruzkoa; nahiz eta sarituak ez diren asko izan eta aspaldian eman ziren aitortzak.

Hasta la fecha la única regulación existente es de 1962 relativa a los Hijos Predilectos, Hijos Adoptivos y las Medallas de Oro, aunque los galardonados han sido escasos y en épocas pretéritas.

Bestalde, "Txopitea eta Pakea" saria 1998an sortu zen eta urte hauetan guztietan pertsonei eta kolektiboei eman zai haien afiliazioa gorabehera, hala nola Garate Larrañaga andrearen kasua eta Udalbatza honetako beste kide batzuen kasuan bezala. Sari hau emateko orduan, ez da

Por su parte, el premio "Txopitea eta Pakea" se creó en 1998 y a lo largo de estos años se ha distinguido a personas y colectivos con independencia de su filiación, como es el caso de la Sra. Garate Larrañaga y otros miembros de esta Corporación. A la hora de conceder

inolako ilegaltasunik egin, ez baitzegoen araudi zehatzik eta, beraz, beste erakunde batzuetan bezala jokatu da. Edonola ere, bere taldeak ez du inolako eragozpenik gainerako udal taldeek aurkeztu duten mozioarekin bat egiteko eta sarituak aukeratzeko moduaren aldaketan lan egiteko. Nolanahi ere, jasota laga nahi dute “Txopitea eta Pakea” sariaren hogei urteotan sarituei ez zaiela inoiz eragozpenik jarri, azken hauei izan ezik.

este galardón no se ha cometido ilegalidad alguna puesto que no existía una reglamentación específica y, por tanto, se ha actuado como en otras instituciones. De todas formas, su grupo no tiene el menor inconveniente en sumarse a la moción presentada por los demás grupos municipales y trabajar en la modificación de la forma de seleccionar a los premiados. No obstante, desea dejar constancia que en los veinte años de vida del premio “Txopitea eta Pakea” no se ha planteado objeción alguna a los premiados a excepción del último.

**Garate Larrañaga andreari** ondo iruditzen zaio PSE-EE-PSOE udal taldeak mozioarekin bat egitea, eta zehaztu nahi du "Txopitea eta Pakea" saria ez zitzaiola berari bakarrik baizik eta hogei zinegotzi gehiagori, herri honi modurik onenean zerbitzatzeagatik. Eta adierazi du eska daitekeen gutxiena dela ilegaltasunik ez egitea horrelako kontuetan.

La **Sra. Garate Larrañaga** muestra su parecer favorable a la adhesión a la moción del grupo municipal del PSE-EE-PSOE y desea puntualizar que el premio “Txopitea eta Pakea” no se le concedió personalmente a ella si no a veinte concejales más por servir de la mejor manera posible a este pueblo. Y afirma que lo mínimo que se puede exigir es no cometer ilegalidad alguna en estos temas.

**Jarduneko alkate-udalburu jaunak** azpimarratu du ohore-aipamenak emateko araudia aldatzeko lortu den adostasuna, eta

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** resalta el consenso alcanzado para modificar la regulación del otorgamiento de las diferentes

faltan botatzen du bere taldeari gonbita ez egitea mozioarekin bat egiteko.

distinciones honoríficas y también echa de menos que se hubiera invitado a su grupo a sumarse a esta moción.

Udalbatzak, aho batez, honako mozio hau onartzen du:

En consecuencia, el Pleno de la Corporación, por unanimidad, aprueba la siguiente

**MOZIOA**

**MOCIÓN**

ARRAZOIAK:

JUSTIFICACIÓN:

Pertsonei, taldeei edo entitate publiko zein pribatuei aitortzak ematea oso sustraituta dago, modu positiboan, gure gizartean. Hainbat esparrutatik eman daitezke sariok, eta baita hainbat organo, erakunde edo elkartetan eta era guztietako entitateetan; gure iritzian, aitortzak adostasunak jaso eta bildu behar ditu, ulertzen baita jasotzen duen pertsonak, bereziki, gizarteari, komunitateari edo herritarrei transmititu nahi zaizkien balioak ordezkatzen dituela; halaber, jasotzen duena bezain garrantzitsua izan daiteke nork ematen duen; izan ere, saria ematen duenak ordezkatzen dunaren izenean egiten baitu, alegia, gutxi batzuen izenean edo herri edo hiri oso baten izenean.

El otorgamiento de reconocimientos o distinciones a personas, grupos o entidades públicas o privadas, es un hecho profundamente arraigado, de manera muy positiva, en nuestra sociedad. Es posible concederlos desde muchos ámbitos, así como en muchos órganos, instituciones, asociaciones o entidades de toda índole, un hecho que debe de recoger y aunar consensos, a nuestro entender, puesto que se concibe que quien lo recibe representa, sobre todo, los valores que se quieren transmitir al resto de la sociedad, comunidad o ciudadanía en general; pero tan importante puede ser quien lo recibe como quien lo otorga, puesto que quien lo concede lo hace en nombre de quien representa, que puede ser en

nombre de unos pocos o en nombre de toda un pueblo o ciudad.

Guztiok printzipio horrekin ados egongo garela iritzirik, uste dugu Eibarko Udalak ematen dituen sari edo aitortzak araututa egin beharko liratekeela, halako moduz non ezingo diren egon momentu horretan gobernatzen duenaren edo uneko alkatearen mende, ez litzateke-eta bidezkoa izango.

Esperando que estemos todos de acuerdo con este principio, consideramos que las distinciones o reconocimientos que otorga el Ayuntamiento de Eibar, se deberían regular de forma que no pueden estar al albur de quien gobierne en el momento, o del alcalde de turno, pues no sería justo.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, behean sinatzen dugun udal taldeok Udal Osoko Bilkurari honako akordio hau har dezala proposatzen diogu:

Por todo lo expuesto, los grupos municipales abajo firmantes proponen al Pleno Municipal la adopción del siguiente acuerdo:

Eibarko Udal Osoko Bilkurak hitz ematen du araudi bat egingo duela, zeinak jasoko duen zer eredu jarraitu behar den Eibarko Udalak edozein pertsonari edo entitate publiko zein pribaturi ematen dizkien sari edo aitortzak.

